

5.FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hasierako baliabidea eta gehien beharko duguna dirua izango da. Baliabide hau oso garrantzitsua da, izan ere, enpresa bat hasten denean normalean urria izaten da. Horregatik, funtsezko baliabidetzat hartzen dugu.

Bestalde, giza baliabidea ere oso garrantzitsua izango da. Hasieran, bost bazkideok elkarrekin lan egingo dugu kostuak minimizatzeko asmoz. Adrianok informatikaz eta produktuaren muntaketaz arduratuko da. Anek lehengaien erosketaz eta hornitzaileekin harremanez arduratuko da. Asierrek sektore ekonomikoa kudeatuko du: finantzaketa, kontabilitatea eta bezeroekiko harremanak. Leirek marketinaz eta sare sozialei lotutako lanaz arduratuko da. Azkenik, Ikerrek hornikuntzaz eta produktuen biltegitratzeaz arduratuko da.

Ondoren, gure asmakuntza edo produktua patentatuko dugu; hau izango da gure baliabide intelektuala. Baliabide honek gure asmakizuna babesteko eta zaintzeko balio izango du.

Azkenik, baliabide fisikoak ere beharrezkoak izango dira. Hasteko, ordenagailuak beharko ditugu administrazioa kudeatzeko, softwarea sortzeko eta sare sozialak lantzeko. Horrez gain, produktua fabrikatzeko lehengaiak beharko ditugu, hala nola txipak eta sentsoareak. Era berean, makinak ere beharko dira, adibidez, txipak soldatzeko edo produktuak biltegitratzeko. Azkenik, nabe bat funtsezkoa izango da gure bulegoa izateko, baita produktuak sortu eta biltegitratzeko ere.